



Azpeitiko Udala

MARIA OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, Azpeitiko
Udaleko idazkaria.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatzak bi mila eta hogeiko azaroaren hiruan egindako bilkuran hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

**GIPUZKOAKO ABERE ETA LANDARE BABESLE
ELKARTEAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO
LANKIDE-TZA HITZARMENA, BAZTER UTZITAKO TXAKUR ETA
KATUEN BABESAN LAGUNTZEKO.**

Aurrekariak:

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa anto-latzeko eta kudeatzeko eskumen propioa aitortzen die Udalei.

Esparru honetan, urriaren 29ko Eusko Legebiltzarraren 6/1993 Legeak, animaliak babestekoa, besteren artean, honako betebeharrak ezartzen dizkie Udalei.

- Dagokion udalerrian bazter utzitako animaliak edo jabearen laguntzarik gabe noraezean dabiltzanak jasotzea.
- Animalia jasota eduki eta mantendu 30 egunez gutxienez.
- Langileak eta toki egokiak izatea animaliekiko betebeharrak horiek betetzeko.
- Udal bakoitzak dituen betebeharrak zuzen hauetaz gain, aipatutako legeak aurreikusten du Animalien Babesa eta Defentsarako Elkarteekin hitzarmenak egitea betebeharrak horiek, zeharka bada ere, betetzeko.

Azpeitiko Udalak bazter utzitako animaliak edo jabearen laguntzarik gabe noraezean dabiltzanak jasotzeko eta toki egokian mantentzeko zerbitzuak baditu. Txakurren kasuan animalia horiek Azpeitiko Odria auzoa, 473n Basabe baserriko terrenoetan kokatuta dagoen Gorriye Txakur egoitzan mantentzen dira 30 egunez gutxienez*, eta katuen kasuan Oiñatz Animalia Elkartearen gain dago noraezean dabiltzan animalien zaintza.

*2020. ekitaldi honetan dagokion kontratazio espedientea tramitatuko da zerbitzu horretarako.

Legeak agindutako zerbitzuak emateaz gain, **Azpeitiko Udalak interesa du** 30 egun baino gehiago egon diren bazter utzitako txakurrak eta katuak denbora gehiagoan babesteko. Hori horrela izanik, SPAPG Animalien Babesa eta defentsarako Elkartearekin hitzarmen bat egitea proposatu da, elkarte



honek badituelako baliabide pertsonalak eta materialak. Elkartek animalientzat **aterpe bat du**, Zuhaitzpe izenekoa; Usurbilen kokatua.

Hitzarmenaren helburua, beraz, Udalaren eta SPAPG Animalien Babesa eta defentsarako Elkartearen arteko harremana arautzea da, animalia hauen adopzioa sustatzeko interesa duten pertsonen artean, beti ere, animalia zainketa egokia bermatzen badute, bai tratu aldetik, bai elikadura aldetik, baita zainketa sanitarioaren aldetik ere.

Udalbatzako kide guztiak ados azaldu dira hitzarmena onartzeko, eta **Estrategia eta Hirigintza** batzordeak 2020ko urriaren 26an emandako aldeko irizpena ikusita, Udalbatzako kideek aho batez hartutako botoarekin, eta beti ere kideen legezko kopuruaren gehiengoarekin, ONARTU DUTE:

A) Azpeitiko Udalaren eta SPAPG Animalien Babesa eta defentsarako Elkartearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena, udalerrian bazter utzitako **txakur eta katuak** jasotzeko, Elkartek Usurbilen animalientzat duen Zuhaitzpe aterpean.

Hitzarmenak bi erakundearen arteko harremana zehaztu du, eta baita animaliak aterpean egingo duten egonaldiak sortuko gastuak ere. Hala nola:

-Txakurra edo katuak kokatua dagoen lekutik Aterpera eramateko irteera: **0,53 euro km**

- Egonaldia eta mantenua: **7,85 € /zakur/egun**

- Egonaldia eta mantenua: **4,73 € /katu/egun**

Animalia bere jabeak jasotzen badu, gastu guztiak (partikularrei emandako zerbitzu bezala fakturatuak) bere kontura izango dira, udalari kosturik eragin gabe.

Eutanasia eta gorpua eramatea: erraustu beharreko animalia bakoitzak duen pisuaren arabera:

- 20 kg. arte: **100 €**

- 20 kg. baino gehiago: **130 €**

Prezio hauek eguneratu egingo dira urte bakoitzaren hasiera, dagokion KPIa aplikatuz.

B) Alkatea baimentzea Udalaren izenean dagokion hitzarmena sinatzeko.

Eta horrela jaso gera dadin eta, alkate udalburuaren on iritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeiko azaroaren lauan.

